

MATERek “emakumezkoek garatutako berrikuntza” lehen saria jaso du

Pasaiaiko entitateak arrantza-sektorean berrikuntzaren aitortza nazionala jaso du

Urriaren 15ean ospatzen den Landa-Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Landa-Emakumeen Berrikuntzan Bikaintasunaren Sarien XIV. edizioa martxan jarri du aurten eta MATERek itsas arrantzako ondarearen zabalkuntzan egiten duen lana aintzatetsi du.

2010az geroztik, ministerioak urtero antolatzen ditu sari hauek, landa-emakumeek jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioan egiten duten lanari eta lurraldeko jardun ekintzaileari ikusgarritasuna emateko asmoz.

Edizio honetan, entitate Pasaitarrak Arrantza edo Akuikultura Jardueran Berrikuntzan Bikaintasunaren kategorian lehen saria jaso du. MATER, ekoaktibitateak egiteko nabigatzen jarraitzen duen egurrezko euskal azken atun-ontzi handia, museo flotatzaile paregabea, kategoria honetako proiektu berritzaileena izan da nazio mailako ekimen nabarmenen artean.

Egurrezko azken euskal atun-ontzi handia, Ontzi Museo Ekoaktibo bihurtu da, batasun eta eraldaketa tresna paregabe gisa, gizartea ingurunearen kontserbazioan sentsibilizatu eta inplikatzeko, arrantza-ontziaren beraren ikuspegi historikoa oinarri hartuta eta helburua itsasoaren zaintza duelarik. Hori guztia, ingurumen-hezkuntzaren eta turismo arduratsuaren bitartez garatzen dute MATERen, non itsas ondare materiala eta ez-materiala bere zabalkunderako balioesten den eta sektorea babestu eta ahalduntzeko barne-lana egiten den.

Bigarren saria Seo Fisterra Ría Muros Noia Costa Sostenible Arrantza Sektoreko Emakumeen Elkarteak irabazi du, gizarteratzeko entitateekin eta Outesko udalarekin garatutako *Aula Sostible do Freixo* proiektu kooperatiboa koordinatzeagatik. Arrantza-jardueratik eta etxeko erabileratik datozen plastiko-hondakinak arrantza-tresna birbaloratueta eraldatzeko zentro inklusiboa da.

Hirugarren saria Agrícola Gormaz S.L.U.rentzat izan da, amonarengandik oinordetzan hartu zuen arrain-haztegia jasangarritasun eta kalitaterantz bideratzeagatik, gizendutako amuarrainaren ekoizpena, aisialdiko jarduerak eta ingurumen-hezkuntzaren artean dibertsifikatzeagatik. Proiektua Vildéko (Soria) Sant Luis iturburuan dago.

MATER, itsas ondare bizia ingurumenaren zerbitzura

MATER Ontzi Museoa bere originaltasunagatik nabarmentzen den euskal itsas ondarea balioesteko proiektu aitzindarietako bat da. Itsas Gela-Aula del Mar elkarte, 2001ean Pasaian (Gipuzkoa) sortu zen irabazi asmorik gabeko entitatea, ondarea zaintzea eta kulturaren zabalkundearen laguntzea helburu duen proiektua da.

2003an, Itsas Gela-Aula del Mar elkarteak MATER, Kantauroi itsasoko egurrez eraikitako azken atun-ontzi klasikoa, txatartzetik eta hondoratzetik salbatu zuen. Itsas Gela elkarteak itsasontzia erreskatatu eta museo flotagarri bihurtzeko konpromisoa hartu zuen, euskal arrantzaleen arbasoen belaunaldietatik oinordetzan jasotako ondare material eta ez-materialaren memoria historikoa gordetzeko. Egun, itsasoaren ustiapen industria masiboaren ondorioz, arriskuan dagoen ondare hau, balioan jartzea eta XXI. mendeko ekonomia eredu berriak aplikatzea helburu du proiektu honek.

MATERek bere itsas ondarea 2 jarduera-ildotan bereizi du, erronka planetario honen aurrean jarduteko:

Batetik, MATER Museoa, gizarte sentsibilizazio ekintzak eta itsas ondarearen kontserbazioa eta hobekuntza ardatz dituela, urtero 10.000 bisitari baino gehiago dituena: tailerrak, bisita gidatuak, itsasora irteerak, ontzian egonaldia... bezalako jarduerak burutuz; bestetik, MATER Ekoaktiboa, gizarte bere ingurunearen zaintza aktiboan parte hartzeko formula berriak sortzen dituzten proiektu eta kanpainekin.

Ez dugu ahaztu behar proiektuaren izaera argi eta garbi femeninoa dela; honen adierazgarri dira proiektu hau sortu aurretik ontziak zuen izena bera, eta gaur egun berriz, zeharo maskulinoa izan den esparru batean berdintasuna oinarri duen lan-taldea. Izaskun Suberbiola, entitateko zuzendari eta ontziko marinela zentzu honetan bizitako esperientzia kontatu digu: "beti egiten dugu topo arraro begiratzen gaituen portuko kapitain batekin, emakumezko erreferente gehiago behar ditugu arlo guztietan zeinen gai garen adierazi eta normalizatzeko. Eta nola ez, ingurumenarekiko errespetua, justizia soziala eta elkartasuna ardatz izango dituzten ortzi-muga berriak sortzeko."

Landa-Emakumeentzako Berrikuntzan Bikaintasunaren Sarien banaketa Madrilen egin da urriaren 11n, Landa-Emakumearen Nazioarteko Egunaren ospakizunaren baitan.

HARREMANETARAKO

Markel Elizalde | Komunikazio arduraduna

619814225

komunikazioa@mater.eus